

PROGRAMAZIO LABURRA

IKATETXEAREN IZENA									2017-2018
ARLOA / GAIA	MARRAZKETA TEKNIKOA						DATA		
ETAPA - MAILA	1 DBH		2 DBH		3 DBH		4 DBH	1 BATX.	2 BATX. ×

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK
---	--

- 1.- Errepresentazio geometriko baten ezaugarri desberdinak azaltzea, terminologia egokienak erabiliz, bai ahozkoak bai grafikoak ere.
- 2.- Marrazketa Teknikoaren funtsak ezagutzea eta ulertzea, ondoren industriako planoak eta diseinuak irakurri eta interpretatu ahal izateko, beti ere indarrean dagoen araudia errespetatuz; gainera, planoarekin edo espazioarekin lotuta, esparru teknikoan sor daitezkeen problemei erantzun arrazoituak emateko ere.
- 3.- Arauketa ekoizpena eta komunikazioa bakuntzeko edo errazteko konbentzionalismo bezala baloratzea, bere izaera unibertsala azpimarratuz.
- 4.- Pieza baten errepresentazio grafikoak eta akotazioak egiteko Marrazketa Teknikoaren arauketa erabiltzea, hartara, teknikari batek inolako arazorik gabe irakurri eta ulertu ahal izateko.
- 5.- Fabrikazio-prozesuak eta egiaztapen-prozesuak pieza baten errepresentazio grafikoan eta akotazioan duten eragina ezagutzea.
- 6.- Marrazketan metodoa eta arrazoiketa sustatzea ideia zientifiko-teknikoak komunikatzeko modu bezala.
- 7.- Espazioa planoarekin erlazionatzea, errepresentazio-sistemen bitartez bolumena planoan bertan interpretatzeko beharra ulertuz.
- 8.- Errepresentazio-sistema desberdinak eta espresio-teknika desberdinak ezagutzea, bakoitzak artearen eta diseinuaren mundura egiten dituen komenientzia eta ekarpenen arabera.
- 9.- Errepresentazio-sistema desberdinak erlazionatzea, kokatzea eta interpretatzea, mintzaira grafiko bat izango balitz bezala, gizarte-errealitatearekin eta industria-errealitatearekin erlazioan dagoena.
- 10.- Edozein agerpen grafikoren aurrean jarrera irekia eta kontzientea agertzea eta errepresentazio-sistema teknikoak eta grafikoak, errealitatea ulertzeko lanabes bezala baloratzea eta proiektu teknikoaren elementu motibatzaile bezala ikustea.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
---	--------------------------------	--	--	--	--

ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
	Sistema diedrikoa: - Puntua, zuzena, planoak - Elkarguneak - Paralelotasuna eta perpendikularitasuna - Distantziak. - Sekzioak - Gorputzen arteko elkarguneak - BISTAK Sistema axonometrikoa		Sistema diedrikoa: - Egiazko magnitudeak. - Ikuspegi laguntzaileak.. - Angeluak - Gorputz geometrikoak		<ul style="list-style-type: none"> • Perspektiba konikoa • Geometria laua. Birpasoa • Ukirtzaileak • Kurba konikoak

3	METODOLOGIA
---	--------------------

- Gai berri bat ematerakoan, erabiltzen dugun metodoa zera da: hasieran klase magistrala eta gero ariketen multzo bat (banakako lana)
- Asteko 3 egun badira azalpenak eta ariketak egiteko eta laugarrena piezen tailerra egiteko.

4	BAILABIDEAK
TESTU LIBURUA:	EDITORIALA:
Irakasleok prestatutako ariketen multzoa. Hautaprobetako ariketak. Moodle plataforma eta IKTko baliabideak	

5	EBALUAZIO SISTEMA
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK	
<p>Ez dugu erabiltzen ebaluaketa jarraia (*), multzoka baizik. Ikasgaia 3 multzotan antolaturik dago: sistema diedrikoa, geometria laua eta bolumenak.</p> <p>Ikasleak izango du multzo bakoitzean egindako zenbait kontrolerako batz bestekoa eta bukaeran multzoen batz bestekoa ere kalkulatuko dugu.</p> <p>Azkeneko nota honi (%80) gehituko diogu urtean zehar piezen tailerrean lortutako nota (%20)</p> <p>(*) Sistema diedrikoaren blokea ematen dugun bitartean ebaluaketa jarraia izango da, hau da balio duen nota azkeneko azterketan ateratakoa izango da.</p> <p>Azkeneko nota = (Diedriko nota+geom.laua nota+bolumenak-azterketa) x 0.8 / 3 + (Bolumenak-klaseko lanak) x 0.2</p> <p>* Marrazketa-klaseko lana (%20). Astero lamina bat edo bi eskatuko zaizkie eta horretarako klaseko ordu bat erabiliko dute. Ez badituzte lamina bukatzen etxerako lan bihurtuko dira eta hurrengo klase orduan entregatu beharko dituzte. Laminak baloratzeko irizpidea hau da: 3 puntu- (akatsik gabeko lamina), 2 puntu (akatsen bat badauka), 1 puntu (akats asko badauka) eta 0 puntu entregatzen (edo garaiz entregatzen) ez badu.</p>	
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA	KONTZEPTUAK : %80 PROZEDURAK : %10 JARRERAK : %10

6	BERRESKURAPEN SISTEMA
<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturtean zehar egindako kontrolak badaude antolaturik 3 multzotan : diedrikoa, geometria laua eta bolumenak. - Ikasleak kontrol bat ez badu gainditzen errekuperatu beharko du. Multzo bakoitzeko nota kalkulatzeko erabiliko ditugu kontrol guztietan ateratako batz bestekoa . Nahikotasuna ere multzoka antolatuta dago. - Ikasleak ez badu gaindituta 1 mailako marrazketa, 2. mailakoa gainditzerakoan automatikoki gaindituko du (2 mailan 1 mailako eduki guztiak sakontzen baitira) 	